

Irène Némirovsky



NESKA LAPURRA

(La voleuse)

Armairutik dirua lapurtu dute, non baserriko etxekoandreak gorde baitzuen bezperan: lau txerriren prezioa zen, mila liberako bi billete, izara horiz osatutako pila handi baten azpian gau osoan hantxe egon zirenak.

–Atzo bertan zenbatu nituen sosak, lotara joan baino lehen, eta gaur goizean berriro zenbatu ditut –esaten die atsoak etxaldera ikerketa egitera etorri diren bi jendarmeei–. Jaunok, hau lotsa. Abereez arduratzera joan naiz. Neskatoa herrira bidali behar nuen ogia erostera. Etxean sartu naiz: armairua ireki dut. Barruan begiratu dut. Ezer ez.

Jendarmeak egongelan eserita zeuden, Malaret-en. Malaret erabat hondaturik dagoen jauregi bat da; Jeu-ko baroiarena izan zen, bertan bizitzerik ez eta jauregia zaharberritzeko dirurik ere ez zuenez, baserritar batzuei alokatu zien; baserritar hauek dirutza egin zuten eta jauregia eta lurrak berrerosi zizkioten, baina ez zuten ezer konpondu, zela zekenkeriagatik zela arduragabekeriagatik. Oilategiak eta untxitegiak ohorezko patio handian jarri zituzten. Abereek aintzirako ura edaten zuten,

garai batean eskualdeko aintzirarik ederrena eta arrainik oparokoena izana zen, baina gaur egun ia lokatzez beteta zegoen. Terrazan, gaztainondoak bota zituztelarik, gobada esekitzen zen. Malaret-eko bizilagunak zaputzak, fidagaitzak ziren; planta harro eta basa zuten. Neguan, sei-zortzi hilabete igarotzen zituzten inor ikusi gabe: Malaret herritik urrun zegoen, eta basoz inguratuta; urte-sasoirik beltzengan, ez zegoen inguruko bideetan ibiltzerik. Murrueatik harriak erortzen ziren, eta haize-egunetan teilatuko teilak. Guardiako areto zaharra sukalde bihurtuta zegoen. Gainerako geletan zoruak hondoratuta, kristalak puskatuta zeuden; tximinien barrutik eskegita, artile-piloak. Sua ez zen inoiz pizten; tximiniak hain handiak ziren, ezen, neguko egur-hornidura gau bakan batzuetan agortuko baitzen. Liburutegi zaharrean arkumeak hazten ziren; sagarrak musika-gelan gordetzen ziren. Sukaldearen ondoan gela txiki zoragarri bat zegoen, logela margotu batekin eta leiho biribil batekin. Herrian, “Malaret-eko horiek” inork gutxik gogoko ez bazituen ere, goraiatu egiten zituzten zeren, diru asko izan arren, baserriko bizimodua egiten jarraitzen baitzuten, kaletartu gabe. “Hala ere, aberatsak dira, horra hor”, esaten zuten begirunez. “Baina atsoarekin, txakur txiki bat txakur txiki bat da.”

Atsoa bazen emakume txiki, gihartsu, larderiatsu bat, jendarmeen aurrean zutik zegoen, oso zurrun, bi eskuak bere sabelaren gainean elkarri lotuak. Haren ahoa ikaragarri hondoratuta zegoen,

ia-ia ezpainik gabea zen, ertzak beherantz eta sakon zimurtuak. Alarguna zen; berak gobernatzen zuen etxaldea; ahulezia bat baino ez zitzaion ezagutzen: bere biloba biziki maite zuen, hamabi urteko neskato bat, ehizako istripu baten ondorioz hildako bere seme nagusiaren sasiko alaba. Jendeak bazekien ezen, hil baino lehen, mutilak –hogei urte zituen– bere amari egia kontatu ziola:

–Gure neskame Marguerite-ren maitalea nintzen. Orain, nirea den ume baten esperoan dago. Zin egidazu hazi egingo duzula.

Amak hitza eman zion. Umea, neskato bat, Marcelle, jaio zen. Pixkanaka, emakume zaharrari bilobarekiko lotura estuagotuz joan zitzaion, bere oinordeko izendatzeraino. Marguerite-ri dagokionez, etxeakoandrea zen urrezko harribitxi bat, paparreko bat, lapurtu omen zuen eta kalera bota zuten. Marcelle-k hilabete bakan batzuk baino ez zituen. Neskamea, etxaldea utzi eta gero, Parisen jarri zen bizitzen eta handik gutxira hil zen; inoiz ez zuen bere alaba erreklamatu. Amonak Marcelle mainatu egiten zuen; herrian pianoko lezioak harrarazten zizkion eta jai-egunetan zuriz jantzen zuen; lanera bidaliko ez zuela esaten zion; aitzitik, ezkonduko zuela eta etxaldea lagako ziola. Oso neskato polita zen, bere adinerako oso altua, eskolako ikaslerik onena. Bere amonaren eta jendarmeen arteko elkarrizketari adi zegoen. Amantal beltz batez jantzita zegoen eta adatsa

txirikordekin orraztuta zeukan, punta bakoitzean begizta urdin banarekin.

Haren ondoan hamazortzi urteko neska gazte bat zegoen zutik, oso mardula, ile-gorria, kokots-soil lodi batekin, halako behi-itxura ematen ziolarik. Haren beso biluzi, fresko eta arrosakarak – ile errekaraz beteta– distiratsu agertzen ziren eguzkiaren azpian. Oiloei jaten ematetik zetorren eta metalezko pertz baten heldulekua zeraman artean eskumuturretik zintzilik. Laneko arropaz jantzitako bi gazte euren eskalapoiei begira zeuden atalasetik; gero, barrura sartu eta mahairaino hurbildu ziren hitzik ahoskatu gabe. Bi mutil hauek eta berauen arreba atsoaren ilobak ziren, etxaldean mirabe lan egiteko hartuta baitzeuzkan. Etxaldean ez zuen inoiz jende arrotzik hartzen lanerako; familiakoekin bazuen nahikoa. Lan egun handiko garaietan baino ez zuen kanpoko jendea hartzen, baina hori martxo aldean izaten zen. Eguna eder, eguzkitsu joan zen. Negu luzea amaiturik, ganadua aurreneko aldiz atera zuten kanpora; artaldetxo bat kapelako hondakinen eta aintzirako ertzen artetik igaro zen; airea haien beez bete zen; zeruaren kolorea urdin samurrekoa zen. Jendarmeak logura ziren, euren edalontzitxo uxuala beteak edanda zeuzkaten; bien bitartean, etxalde bateko patio batek udaberrian ateratzen duen marmar goxoa ailegatzen zitzairen: urtu eta bi harriren artetik irristatzen den elurraren marmarra; usoen urruma teiltuan; gertuko zelaian moxalen ipurtsaltoak eta hegaztiak aleak mokoaz tok-tok-tok jasotzen,

zoriontsu, noizean behin luma nahasiren bat –zuri-beltza berau– bazihoala arin goraka eta berriro beheraka, lurrerantz. Horrelako egunetan, ba ote dago ezer hoberik aulkian eserita egotea baino, ate erdi irekiaren ondoan, burua itzalpean eta oinak eguzkitan, ezertan pentsatu gabe...? Baina itaunketarekin jarraitu behar. Jendarmeeek pipak piztu eta haietako batek galde egin zuen:

–Orduan, ondo ulertu badut, goiz horretan, lapurreta gertatu zenean, etxean ez zegoen inor?

–Ni nengoen, ganaduarekin –erantzuten dio atsoak–. Bi mutilak hesiak konpontzen ari ziren. Nire biloba Cécile nirekin zegoen eta Marcelle arkumeez arduratzen ari zen. Erditzean bi ardi hil zitzaizkigun eta orain haien kumeak biberioz elikatu behar ditugu. Gure txikia arduratzen da horretaz.

–Bergia jarrita daukazu beti mundu guztiarengan?

–Hori da nire ohitura –erantzuten dio emakumeak irriño batez.

–Hemen dauden guztiak, beraz, susmopetik at daude?

–Hemen dauden guztiak familiakoak dira eta ezin dira susmopean hartu –dio, jendarmeari goitik behera begiratu–. Etxekoak ez baina

kanpokoak iker ditzazun deitu dizut. Goiz horretan jende asko zihoan herriko azokara. Abereak garraiatzen zituzten abeltzain batzuk gurera sartu ziren, askotan egiten duten bezala, edari eske. Horien artean Bracelet gaztea zegoen, kartzelatik atera berria da; Ladre ere bazen, mozkorti bat da eta bere ama bera salduko zuen baso bat ardoren truke. Nire iritziz, etxean sartu eta barruan inor ez zegoela ohartuko ziren; orduan, kanpora atera eta nirekin hitz egin nahi balute bezala egin zuten, patioan geldiarazi baininduten ukuiluetatik atera nintzenean.

–Baliteke –dio pentsakor jendarmeak–. Haiek alde egin bezain laster ohartu al zinen lapurretaz?

–Bai, haiei so geratu nintzen bideari berriro ekin ziotenean. Gero, ogirik ez geneukala gogoratu nintzen. Marcelle-ri deiadar egin nion arkumeak utzi eta bizikleta har zezan. Etxean sartu nintzen hari dirua emateko. Izarak-eta altxatu nituen. Orduan ohartu nintzen.

–Utzi niri ikusten armairua.

Andre zaharra gidari, ondoko gelara jo zuten denek. Amonak eta bilobak aurrez aurre zeuden bi ohe handi banatan egiten zuten lo; ohe bakoitza lumatxa arrosa batez eta kakorratzean eginiko tapaki batez estalita zegoen. Armairua zaharra eta sakona zen, oso ederra; behin zabalduta,

eskutrapuak, bururdi-azalak eta izara-piloak azaldu ziren; goian-behean elzteitsu bat, metalezko kutxa txiki bat, larruzko poltsa bat eta bitxiontzi bat ikus zitezkeen. Dirua hantxe zegoen gordeta. Martelet-ekoek ez zuten ez bankurik ez aurrezki-kutxarik behar. Zer esanik ez, gehiago arakatuz gero, erraz topatuko zituzketen 1914koak baino lehenagoko urrezko luisak, 1900. urtean Pariseko Erakusketan erositako zilarrezko mahai-tresnak, eraztunak, lepokoak eta hainbat belaunalditako erloju-kateak.

–Armairua ez duzu inoiz giltzaz ixten? –
jendarmeak emakumeari.

Erdeinuzko begirada bat jaurti zion.

–Benetan uste al duzu begi-bistan utziko nuela hau guztiau? Giltzaz ixten dut beti, eta giltza hemen sartzen dut –eta mahai bateko tiradera erakusten dio–. Ongi ezkutatuta, nire otoitz-liburuaren azpian.

–Inork ez zekien ezkutalekuaren berri?

–Familiak bazekien.

–Baina nolatan jakin zezakeen arrotz batek...?

–Nire ustez, Bracelet eta Ladre, bi mutil horiek, ni zelatatzen ibiliko ziren, behin hemen sukaldean ardoa edaten egon ziren batean. Segur

aski ikusiko ninduten nire gelan sartzen, armairuan dirua bilatzen, hura berriz ixten eta giltza hor gordetzen.

–Ez al dute besterik hartu?

–Ez. Ez zuten astirik izango, noski, ukuilutik ateratzen ikusi ninduten eta.

–Baliteke –dio jendarmeak burua astinduz.

Kareztatuta zeudèn eta aita santuaren argazki batez, kolorezko egutegi batez eta lauki banatan sarturiko bi argazkiz hornituta zeudèn hornei begiratu zien. Haietako batean Marcelle azaltzen zen bere lehen jaunartzean; bestean, hogeit urteko gizon gazte bat, Marcelle-ren aita. Tximinia erraldoiak harriz landutako ezkutarma bat zeukan, Jeu-ko baroien armak; leiho ondoan eskegitako kaiola batean, txonta bat kantuz ari zen.

–Gure berri izango duzu –diote jendarmeek.

Etxetik alde egitera zihoazenean, Marcelle txikiak, ordura arte bere amonaren ondoan oso isilik eta oso tente egon zenak, urrats bat aurrera egin zuen.

–Jaunok, zuekin hitz egin nahi nuke. Mutil horiek, Bracelet eta Ladre, ez dira izan dirua lapurtu dutenak. Ni izan naiz.

Haren ahotsa oso leuna, argia eta hotza zen.
Begotarte sorra zuen.

–Hi? –hots egiten dio jendarmeak.

Kokotsetik heldu eta begietara zuzen
begiratu zion.

–Hi izan al haiz heure amonari lapurtu
diona? Zer egin dun diruarekin?

Marcelle-k bere ohea estaltzen zuen
lumaxaren punta bat altxatu zuen: punta hura
ahora eraman, josteta baten haria bere hortzekin
karraskatu, eskua luma artean sartu eta jendarmeei
bota zizkien mila liberako bi billete zimur atera
zituen.

–Hor dituzue. Ni neu sartu nintzen hona,
arkumeekin lanpetuta nobilela uste zuten
bitartean.

–Ez haiz lotsa ala? –esaten diote
jendarmeei haserre-. Hik egin duk, ezere beharrik
ez bahuere. Baina, hi, alproja hutsa haiz!

–Bai –erantzuten die lasai asko.

–Ba al dakin kartzelan sartuko haugula?

–Bai –ausartzen da erantzutera.

–Baina, zer egin nahi huen bi mila libera hauekin?

–Gauzak erosi.

–Zer-nolako gauzak?

Ez zien ezer erantzun.

–Eta zergatik aitortu dun bat-batean?

Une batez, urduritu egiten zela eman zuen. Nabarmen zurbildu zen eta betazalek dar-dar egin zioten.

–Harrapatuko hindutela beldur hintzen, ezta?

–Bai, hala da –dio azkar-azkar xuxurla batean.

–Ba al dakin hire izena egunkarietan azalduko dela eta lurraldeko biztanle guztiek jakingo dutela Malaret andrearen biloba lapur bat dela?

–Bai –dio, erronkaz.

Familia mutu egon zen denbora osoan. Cécile lodikoteak zerakutsan irribarrean poz sakon bat islatzen zen. Harentzat oso une ona izan behar

zuen, lehengusina txikia – amonaren kuttuna, sasikoa, oinordekoa– ikustea horrela umiliatuta, lapur gisa tratatua. Haren begitartea irribera agertzen zen. Atsoak eskua jaso eta Marcelle-ri bi belarrondoko eman zizkion masailean; neskak kolpeak jaso zituen tutik esan gabe, begiak distirant zituela.

–Hau ez da nahikoa –dio jendarmeak–. Zigorrez jo beharko litzaioke, plaza erdian erdi hilik utzi arte. Zugandik ontasunak besterik hartu ez dituen haur bat! Bide onean jarriko duzula hitz emango ez bazenit, gaur gauean presondegian egingo luke lo –dio, haurra bizkarretik heltzeko keinua eginez.

Ez zuen luzaroago jasan. Andre zaharrak ozta-ozta lortu zuen negar zotin bat itotzea.

–Uztazue, jaunok. Bide ona harraraziko diot –hitz ematen die–. Bai, bide ona harraraziko diot. Baina utz nazazue, utz gaitzazue bakarrik. Familiako afera da; ez dio beste inori axola, guri baizik. Salaketa atzera botatzen dut.

Jendarmeeak alde egin zutenean, ilobengana bueltatu zen eta alde egiteko keinu bat egin zien, atea haien atzetik giltzaz itxiz. Marcelle-rengana bueltatu zenean, oihu egin zion ahots basati batez:

–Amona, jo nazazu, hil nazazu, nahi baduzu, baina ez zara berriro burua gora ibiliko.

Mundu guztiak jakingo du ni neu ere beste lapur bat naizela.

Emakume zaharrak bere burua utzi zuen aulki batean erortzen.

–Zergatik egin dun hau? –galdetzen dio ahul.

Haurra balduta bezala geratu zen, espero baitzuen atsoa oihuka, joka hasiko zitzaiola. Baxuago esan zion berriz:

–Nahi baduzu, jo nazazu, hil nazazu, amona.

–Zergatik egin dun hau? –galdetu zion amonak berriro.

Marcelle-ri begira geratu zen. Harenganako keinurik ez zuen egin. Neskatoa laztanik eta maite-hitzik gabe hazi zuen; masailean musu azkar bat ematen zion urte berrian eta urte bukaerako sari-banaketan, haurra eskolatik ohorezko matrikulaz zamatuta itzultzen zenean.

–Marcelle, begira nazan –esaten dio azkenean.

Haurrak, ahalegin bat eginez, begia jaso zuen.

–Sei hilabete daraman muturtuta nirekin. Ez didan hitz egiten. Etxetik alde egiten dun nirekin hitz egin beharrik ez izateko. Zergatik? Kaskagorra haiz, Marcelle, kaskagor hutsa. Inork ez zekin buruan zer daukan. Inork ez din inoiz jakin Malaret-ekooi gogoan zer darabilgun, beranduegi izan arte. Baina ez pentsa niri oharkabeen pasatu zaidanik. Udaz geroztik ez habil ondo hi. Luzaro aritu haiz kolpe hau prestatzen. Zergatik hago haserre nirekin?

Haurrak oihu egin zion: «Amona!». Gero, isilik geratu zen.

–Hitz egingo al dun behingoz, kaskagor horrek?

Buruaz ezetz adierazi zion.

–Jo haudanean, ni baino gehiago izan dun: hitaz lotsa eginda nengonan. Baina min handiagoa hartu dinat nik hik baino.

–Badakit, amona.

–Hiretzat egiten dinat lan. Gogor ari naun lanean. Hemen dagoen guztia ez dun ez Cecille-rentzat ez beste inorentzat. Hiretzako baino ez dun. Nire dirua lapurtzean, heure buruari lapurtzen dion. Ba ote dago gogo biziz eduki nahi dunan zerbait? Liburuak? Harribitxi bat? Bi mila libera dirukopuru ederra dun, baina arrazoizko zerbait

erosteko eskatu izan bahu, nik eman egingo
ninakeen. Ba al dakin hori?

–Bai, amona.

–Marcelle, zergatik egin dunan esan behar
didan.

Haurra orain negar eta negar hasi zen.
Halako batean bere esku argalak zakar bihurritzen
hasi ziren eta, bat-batean, etsita oihu egin zion:

–Ez duzu ezertxo ere ulertuko! Ez du
merezi ezer esatea. Ez duzu ezer ulertuko, ez zuk
ez beste inork.

Luzaro aritu zen negarrez, geldi-geldi eta
mutu. Azkenean, esan zuen:

–Gogoan al duzu gari-joka aritu
ginenekoan?

–Bai –dio amonak, erne.

Haurrak hitz egokiak bilatu zituen. Malaret-
en gari-joka aritu zireneko eguna oso ondo
gogoratzen zuten biek, amonak eta bilobak. Urte-
sasoi hartako azken soro-lanetako bat izan zen: lan
egiteko eta ondo pasatzeko egun bat. Bezperan,
goizaz gozotik, gozopil horixka erraldoiak labean
egosten egon ziren, eta haiek apaintzeko, hurrek
aste osoa eman zuten fruituak biltzen. Mahaia

saskitzar bete aranez josita zegoen; berauen urrezko azal arrakalatutik azukrezko perlak irteten ziren eta berauen lurrinak erleak eta liztorrak erakartzen zituen; sabai altuen azpian, aireak burrunba baxu, etengabe batez dardaritzen zuen, zeina aldi berean alaia eta lodia baitzen, udaren beraren soinua balitz bezala, eta bihotza jairako prestatzen zuena. Egun horretan, landetako etxalde guztietan aritzen dira elkarren lehian: lagunei, langileei eta auzokoei bazkaririk onena nork prestatuko. Hamaika jaki ateratzen dira: hegazti gizen askoak, ardo ona, gerizaz eta kremaz betetako arrautzogiak, gurinezko opil dirdiratsuak...; etxekoandreak jo eta ke aritzen dira lanean; haurrek fruituen hezurra kentzen dihardute.

–Gogoan al duzu, Amona, egongelan ni bakarrik nengoela, Cécile-rekin? Cécile beti izan da nahiko parte txarrekoa nirekin. Orain dela pare bat urte, nola puskatu zen azukre-ontzi urdin hura? Hark esan zizun nahita utzi nuela lurrera erortzen. Baina ez zen egia, berari gertatu zitzaion-eta.

–Zergatik ez huen heure burua defendatu?

–Hargatik.

–Nahiko ausarta bahintzen, ezta?, hire burua defendatzeko –dio amonak xuxurla batean. Eta burua hainbat alditan astintzen du, pentsakor.

–Orduan, Marcelle?

–Orduan, eztabaidaka hasi ginen. Nik, barre egin eta hartaz trufatzeko, plateretik aranak kentzen nizkion, labeko janaria begiratzera joaten zen bakoitzean. Orduan, nirekin asko haserretu zen eta lapurra deitu zidan. Nik, berriz, barre egiten nion. Ez da lapurreta bat, ezta, amona, fruituak jatea garijoka aritu garen egunean? Ni barre-algaraka ikusita, bere senetik atera zen eta esan zidan: «Bai, hi lapur bat haiz, heure ama bezalaxe, hura ere etxe honetan aritu baitzen neskame, eta urrezko paparreko bat lapurtu zionan amonari, horra, etxetik bota eta kartzelan hil zen lapur bat baino ez zunan izan hura ere». Nik oihu egin nion: «Hori ez dun egia!» Orduan, hark, sartu berriak ziren nire lehengusuei galde egin zien ea egia zen ala ez, eta haiek baietz esan zuten, nire ama lapur bat izan zela eta etxaldetik kalera bota zutela. Banekien sasiko bat nintzela, amona, beti jakin dut, baina berdin zitzaidan, ez naiz sasiko seme-alaba bakarra. Eskolan, esaterako, Jeanne de Montmort dago, hura ere sasikoa baita, eta Jeanne du Moulin-Neuf, eta eskalapoi-egilearen alaba Marie; eta herrian, Bidaztien Hoteleko Hortense andreak ere badu haurtxo bat, hura ere aitarik gabea. Aita bat izan dut, nire amarekin ezkondata egon ez bazen ere, eta hori berdin zitzaidan, baina inork ez zidan inoiz esan nire ama lapur bat izan zela!

–Marcelle!

–Orduan, ezin izan dut ahaztu. Denbora osoan aritu naiz horretaz pentsatzen. Lotsa nintzen eta... gorroto nizun mundu guztiari esan zeniolako, herriko guztiei zuk zeuk eman zenielako nire ama lapur bat zela jakiteko aukera. Gu, Malaret-en, harroak gara. Inori ez diogu ezer zor, zuk beti esan didazu jendeari begietara begiratzeko beldurrik gabe, inoiz inori egin ez diogulako ezer txarrik. Eta gogora etorri zitzaizkidan nire ezkutuan, nire bizitza guztian, zera esango zutenak: «Haren ama lapur bat izan zen!» Ezin nuen ezer egin hori aldatzeko. Eskolan asko ikasi, arropa ederrak jantzi, pianoa andereño baten gisa jo, Malaret-eko etxeoandrea izan... horrek guztiak ez zuen ezer aldatuko. Eta hori guztia, zure erruz. Nahiko kaltea egin zitzaion nire amari aita harekin ez ezkondata; haurra kendu egin zitzaion; mundu guztiari jakinarazi zitzaion lapur bat zela. Orduan, zigortu nahi izan zaitut. Esan nion neure buruari: «Berak ere jakingo din zer den lotsa izatea eta bere familiaz lotsagorritzea. Ni maite nain, nire bidez jasoko din zigorra.» Eta gainera, ez nuen ama baino zoriontsuagoa izan nahi, ulertzen al didazu? Kalera bota zenuten, jendarmeei deitu zenieten. Zuk ere modu berean jokatuko zenuela pentsatu nuen, jendarmeei deitu eta eramango nindutela; kartzelan bukatzea berdin zitzaidan. Zutaz, herrian, jendeak esango zuen: “Ba al dakizu? Haren bilobatxoa, Marcelle, hura ere beste lapur bat da.» Eta orduan zuk ulertuko zenuen, zera ere sentituko zenuen... Orduan, aitaren bataioko domina armairutik hartu nuen, urrezkoa, eta arkumeen etzalekuan jarri nuen,

gero, gau hartan bertan, ez dakit zergatik, beldur izan nintzen eta bere lekuan utzi nuen berriro. Baina gero eta gehiago pentsatzen nuen amari buruz. Ametsetan ikusten nuen. Egia al da kartzelan hil zela?

–Ez, hori ez dun egia. Parisa joan zunan, eta han hil zunan.

–Nik kartzelan ikusten nuen eta esnatu egiten nintzen. Zuk esaten zenidan: «Ametsetan negar egin al dun? Masailak malkoz bustita dauzkan.» Herrira nindoanean, halako gauzak entzuten nituen: “Haren ama ez zen gauza handirik, baina bera!... Haren amona oso harro dago ume horretaz.» Nik... Gero eta herra handiagoa nizun, amona, eta orduan dirua hartu nuen. Cécile oso pozik dabil, baina hori ere berdin zait.

Isildu egin zen. Andre zaharrak ere mutu eta geldi zirauen. Bien bitartean, haren ezpaineak dar-dar egiten zuten, hitz egin nahi baina kemena faltako balitzaio bezala. Haren giza irudi argala zur-zurbil zegoen orain. Keinu bat egin zion Marcelle-ri, gehiago gerturatu zedin. Ahots itoaz xuxurlatu zion:

–Hire ama ez zunan lapurra. Inoiz aurkitu ez genuen paparreko hura nik neuk ezkutatu ninan logelako tximinian, hementxe, loka zegoen harri baten azpian. Ziur nagon oraindik ere bertan

egongo dela. Hamar urte hauetan behin ere ez dinat begiratu ea bertan jarraitzen zuen.

Marcelle-ri egokitu zitzaion orain galde egitea:

–Zergatik egin zenuen hori?

–Ezin ninan jasan, Marcelle –dio amonak, eta keinu zakar eta sumindu batek hazpegiak inarosten dizkio–. Harroa naizela dion. Bai, hala nindunan neure semearengatik. Lurraldeko emakumerik onenarekin ezkontzeko aukera zeukanan, baina horra hor, neure bilobaren ama deus baino gutxiago zunan! Nahi zuen bezala hi hezteko eskubidea zeukanan, nahi zuen guztia egin zezakenan! Hartaz libratzeko saioa egin ninan. Dirua proposatu nionan, herritik alde egin zezan hi nirekin utzita. Baina ez! Ez zinan nahi izan. Orduan... Lapur bat zela esan ninan eta etxaldetik bota ninan. Bere burua defendatu zinan, baina inork ez zion sinistu. Hi erreklamatzeko ausardia ere izan zinan. Marcelle, begiratu tximinian. Loka dagoen adreilu bat ikusiko dun. Ekar ezan han topatuko dunana.

Haurrak esana egin zion eta urrezko paparreko batekin itzuli zen; eite zaharrekoa zen, eta bihozño bat osatzen zuten perla txikiekien apainduta zegoen. Andre zaharrak une batez isilik iraun zuen hari begira.

–Hiri hau guztiau kontatu eta gero, ez nagon harro –esaten dio azkenean.

–Amona!

–Beharbada juzgu txarra egingo dun nitaz, eta begirunea zor didan. Hau dena kontatu dinat heure amaz lotsaturik gehiago egon ez hadin, eta naizen baino harroagotzat jo ez nazan. Beste batzuen aurrean, bai... Harro jaioak gaitun, odolean zeramanagu, baina Jainko Onaren aurrean, batek bere burua ikusi behar dik den bezala, Marcelle.

–Min handia egin zenion amari –egiten dio oihu neskatoak, negarrez.

–Hik ere min handia egin didan, Marcelle. Munduaren aurrean –jarraitzen du atsoak– zigortu egin behar haut. Neskame bidaliko haut Chauffailles-enera, nire ahizparenera. Bihar abiatuko haiz.

–Soro-lan handien ostean itzuliko al naiz? – galde egiten dio Marcelle-k, irrikaz.

Amonak burua astindu zuen.

–Ez, ezinezkoa dun. Jendeek esango diten goizegi barkatu haudala, ulertzen al dun? Beharrezkoa dun mundu guztiak jakitea behar bezala zigortua izan haizela eta ohore-kontuak

guretzat sakratuak direla. Begirunea gordeko zidaten eta hiri ere bai geroago. Ulertzen al dun?

–Ulertzen dut, amona.

–Goazeman orain.

Hutsik zegoen gelara itzuli ziren. Amonak zopa prestatzeari ekin zion; neskatoa leiho ondoan eseri zen liburu batekin. Haren bihotza apurtzen hasia zen; inoiz ez zen Malaret-etik kanpo izan. Nolako hutsunea utziko zion, lurralde harro eta basati honek! Noizean behin, malkoak zetozkion begietara; ez zien uzten, ordea, masailetatik behera isurtzea. Ezpainak gogor estutzen zituen eta malkoak berriro barrura sartzen zitzaizkiola ematen zuen, barruko su batek xurgatuak bezala.

Bazkaltzeko orduan, haren lehengusu-lehengusinak atalasean agertu ziren; urrutitik begi-kolpe bat eman zieten jakin-minez, ezer esan gabe; haietako bakoitzak eskalapoiak erantzi, eskuak kobrezko konketan garbitu eta mahaietan eseri ziren. Gizonek txanoa buruan utzi zuten erantzi gabe, ohitura zenez. Zopa isilean hartu zuten. Gero, amonak aulkia atzerantz bultzatu zuen. Gero, zimurrez jositako bere esku gogorrek gurutzatu eta lasaitasunez esan zuen:

–Bihar, Marcelle-k etxaldetik alde egingo du. Chauffailles-era joango da, nire ahizparen etxera, neskame lan egitera. Zigor hori ezarri diot

gaizki jokatu izanagatik. Den-dena aitortu dit. Dirua hartuta, gustu txarreko txantxa bat egin nahi izan du, eta lapurreta bat izan ez bada ere, merezi du zigortua izatea, ohorezko kontuak errespetatzen ikas dezan.

Isildu egin zen. Haurra adi-adi begira zitzaion. Lehengusu-lehengusinek, sardexkak airean, erne zeuden. Amonak ahots indartsuz honela bukatu zuen:

–Gaitz handiarentzat, erremedio handia! Atzo, diru madarikatu hori leku guztietatik bilaka ari nintzela, duela hamabi urte galdu nuen urrezko paparrekoa aurkitu nuen. Beraz, ez da egia Marguerite-k lapurtu zuela, hasieran uste izan nuen bezala. Zoritxarrez, hilda dago; bestela, barkamena eskatuko niokeen egin nion kaltearengatik.

–Paparrekoa? –hots egiten du Cécile-k, larri.

Amonak hatzak lasaitu eta harribitxia mahai gainean erori zen. Inork ez zioen ezer. Isiltasunaren erdian, Marcelle-k egindako hasperen sakona entzun zen eta, bat-batean, haurra negarrez hasi zen. Amonak ez-ikusiarrena egin zuen. Zutik jarri, mahai-tresnak kendu, zamaua tolestu eta ura berotzen jarri zuen harrikoa egiteko. Gero, ahots berberaz eta lasai agindu zuen:

–Zoazte ganadua gauerako prestatzera. Hi,
Marcelle, hoa maleta egitera, ene txikia.

Eta haurrak erantzun zion:

–Bai, amona.

Amaiera